

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

239/2026 Foru Agindua, uztailaren 29koa. Adieraztea iraungi dela Legutioko udalerrian kokatuta dagoen eta Urrunagako herriarena den onura publikoko "Lugarrea-Atxausi-Mendieta" izeneko mendiaren mugaketa eta mugarritze prozedura

Mendi Zerbitzuak jakinarazi duenez, Diputatuen Kontseiluak 1995eko abuztuaren 16an hartutako 645/1995 Erabakiaren bidez, Urrunagako herriarena den eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Lugarrea-Atxausi-Mendieta" izeneko mendi publikoa mugaketa egoeran zegoela adierazi zen. Erabaki hori 1995eko irailaren 1eko ALHAOn (104. zk.) argitaratu zen, eta, mendi hori mugatzeko eta mugarritzeko prozedurari hasiera ematearekin batera, interesdun ezagun fisiko eta juridikoei jakinarazi zitzaien, hartu agiridun gutun baten bidez.

Neurketa lanak 1995eko urtarrilaren 26an (Urbinauko herriko Mendieta mendiarekin muga eginez), 1999ko martxoaren 23an eta apirilaren 15ean (Urrunagako herriko Bergara mendiarekin muga eginez) eta 2000ko irailaren 28an, urriaren 19an eta azaroaren 9an egin ziren, horretarako egindako aktetan jasotzen den bezala. Neurketa eta mugarritze lanak amaituta, ALHAOn argitaratu zen 2002ko urtarrilaren 2an (1. zk.) mugaketa eta mugarritze espedientea jendaurrean jartzen hasi zela eta erreklamazio aldia ireki zela. Iragarki hori interesdun ezagunei, fisikoak edo juridikoak izan, jakinarazi zitzaien, hartu agiridun gutun baten bidez. Erreklamazio aldi horretan, ez zen erreklamaziorik aurkeztu.

Mugaketa eta mugarritzea ez zen onetsi horretarako ezarritako epearen barruan.

Ondorioz, 2026ko uztailaren 21ean, Mendi Zerbitzuak Legutioko udalerrian kokatuta dagoen eta Urrunagako herriarena den onura publikoko "Lugarrea-Atxausi-Mendieta" izeneko mendiaren mugaketa eta mugarritze prozedura iraungi dela adieraztea proposatu du.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta kontuan hartuta zer xedatzen duten Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluek eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren kasuan kasuko artikuluek, eta Arabako Foru Aldundiaren sailak 2023-2027 legeingintzaldirako zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak —Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuaren bidez aldatua— ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Adieraztea iraungi dela Legutioko udalerrian kokatuta dagoen eta Urrunagako herriarena den onura publikoko "Lugarrea-Atxausi-Mendieta" izeneko mendiaren mugaketa eta mugarritze prozedura.

Bigarrena. Agintzea iraungitako prozedurako egintza independenteek ondorioak izan ditzatela eta egintza horiek gehi daitezela, besteak beste, interesdunek eduki ditzaketan eskubideak egiaztatzeko aurkeztutako dokumentazioa, neurketen aktak, mugaketako plano topografikoak.

Hirugarrena. Ebazpen hau prozedurako interesdun guztiei jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, nahi izanez gero, ebazpena eman zuen organoari berari,

hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzietarako Vitoria-Gasteizko Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 29a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNANDEZ SARABIA